Zarauzko Udala
Zk./ Nº 2026/5
Data / Fecha 2026/06/10
Akta / Acta

ZARAUZKO UDALA

2026ko APIRILAREN 28an UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA 5 zk.

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2026ko apirilaren 28an, arratsaldeko zazpiretan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko osoko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

Batzarburua Xabier Txurruka Fernandez jn.

Zinegotziak
Garbiñe Oiarbide Iruretagoiena and.
Irune Urbieta Alberdi and.
Jesus Arana Gomez jn.
Iban San Martin Hernandez jn.
Leire Arana Olabarrieta and.
Gervasio Gabirondo Fernandez jn.
Estibaliz Agirre Uranga and.
Naiara Mendivil Ayerza and.
Itziar Murua Uria and.
Ion Arozena Eizagirre jn.
Ainara Landa Argote and.
Mikel Agirre Etxaniz jn.
Ainhize Larramendi Larrarte and
Ander Lukas Arantzeta jn.
Jesus Goikoetxea Balentziaga jn
Eider Gurrutxaga Larrañaga and.
Garazi Olaizola Irureta and.
Gloria Vazquez Herranz and.
Inaxio Illarramendi Lizarreta jn.

Ez etorriak: Iker Basurko de Miguel jn.

Idazkari akzidentala Xabier Aranburu Soldevilla jn.

Kontu-hartzaile akzidentala Itziar Kortabarria Garitano and.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udalbatzarrak.

GAI-ZERRENDA

1.- 2026KO MARTXOAREN 26KO BILKURAREN AKTA ONARTZEA:

ESKU557571db-c175-4c2f-86e8-378edb1c4a2b

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20260428&punto=1

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA:

— **2026ko martxoaren 21etik 2026ko apirilaren 22ra**

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20260428&punto=2

Segidan, Alkatetzak 2026ko martxoaren 21etik 2026ko apirilaren 22ra erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

3.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIEN KONTROLA:

— **2026ko martxoaren 23tik 2026ko apirilaren 20ra**

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20260428&punto=3

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko martxoaren 23tik 2026ko apirilaren 20ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

4.- 2025eko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA: BERRI EMATEA

Espedientea: 2026D2030001

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20260428&punto=4

Udalbatzak 2025. urteko Likidazioaren berri jaso du.

5.- ALKATETZA DEKRETUAREN BERRI EMATEA: IKER BASURKO DE MIGUEL ZINEGOTZIARI EMANDAKO KUDEAKETA ETA ESKUMEN DELEGAZIOAK ERREBOKATZEA ETA HAINBAT ZINEGOTZIREN ALDEKO DELEGAZIO BEREZIAK ONARTZEA

Espedientea: 2025IIII0002

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20260428&punto=5

Udalbatzak 2026ko apirilaren 22ko 2026/908 dekretuaren berri jaso du.

ESKU557571db-c175-4c2f-86e8-378edb1c4a2b

ZARAUZKO UDALA

Alkatetzaren 2023ko ekainaren 23ko 1456 Dekretuaren eta 2023ko ekainaren 29ko 1468 Dekretuaren bidez, horietan adierazi ziren udalbatzako kideen aldeko delegazio bereziak onartu ziren, udal antolaketako arlo jakin batzuen kudeaketa eskuordetuz, eta Alkatetzari erreserbatuz administrazio-egintzen bidez ebazteko ahala. Delegazio horien esparruan, honako arlo hauen kudeaketa eskuordetu zitzaion Iker Basurko de Miguel zinegotziari:

- Ogasuna eta Finantzak (eskuordetza orokorraren osagarri), Kontratazioa eta Ondarea
- Zarautz 2030, Proiektu estrategikoak eta Berrikuntza
- Mugikortasuna

Alkatetzaren 2023ko azaroaren 9ko Dekretuaren bidez, Iker Basurko de Miguel Tokiko Gobernu Batzarreko kideari eskuordetu zitzaizkion Alkatetzari emandako honako eskumen hauek:

- Kontratazio organoak txostena egingo du, kontratuaren beharra arrazoitzeko.
- Frogatuko da kontratazioko arau orokorrak ez aplikatzeagatik kontratuaren helburua ez dela aldatzen ari.
- Gastua onartzeko ebazpenak.

Gerora sortutako zirkunstantziengatik, aipatutako zinegotziak aldi batean ezin izango ditu bete agindutako delegazioak.

Horrenbestez, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 9. artikuluaren eta Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 43. artikuluaren arabera, honako hau **ERABAKITZEN DUT**:

Lehena.- Alkatetzaren 1456/2023, 1468/2023 eta 2379/2023 dekretuen bidez Iker Basurko de Miguel zinegotziari emandako kudeaketa eta eskumen delegazioak errebokatzea.

Bigarrena.- Alkatetzak kontratazioaren eta ondarearen kudeaketa bere gain hartzea.

Hirugarrena.- Jarraian adierazten diren zinegotzien aldeko delegazio berezi hauek onartzea, udal-antolaketako arlo hauen kudeaketa delegatuz, eskuordetza-emaileari erreserbatuz administrazio-egintzen bidez ebazteko ahala:

- Ogasuna eta Finantzak (eskuordetza orokorraren osagarri), Jesus Arana Gomez zinegotziari.

- Zarautz 2030, Proiektu estrategikoak eta Berrikuntza, Garbiñe Oiarbide Iruretagoiena zinegotziari.

- Mugikortasuna, Gervasio Gabirondo Fernández zinegotziari.

ESKU557571db-c175-4c2f-86e8-378edb1c4a2b

ZARAUZKO UDALA

Laugarrena.- Jesus Arana Gómez Tokiko Gobernu Batzarreko kideari delegatzea Alkatetzari emandako honako eskumen hauek:

- Kontratazio organoak txostena egingo du, kontratuaren beharra arrazoitzeko.
- Frogatuko da kontratazioko arau orokorrak ez aplikatzeagatik kontratuaren helburua ez dela aldatzen ari.
- Gastua onartzeko ebazpenak.

Bosgarrena.- Ordezkariek zinegotzi izaera duten denbora guztian iraungo dute delegazio hauek ere, edozein unetan eta betebehar formalak bete ondoren delegazioa aldatzeari edo errebokatzeari utzi gabe.

Seigarrena.- Dekretu hau izendatuak izan diren zinegotziei jakinaraztea, ardurak onar ditzaten. Udalbatzarrari honen berri ematea, hark egiten duen lehenengo osoko bilkuran, eta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratzea.

Zazpigarrena.- Dekretu hau Alkatetzaren ebazpenen liburuan transkribatuko da, eta hurrengo egunetik izango du eragina.

6.- 2026ko LANPOSTUEN ZERRENDA. AKATS ZUZENKETA

Espedientea: 2025P3020006

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20260428&punto=6

Zarauzko Udaleko Udalbatzarrak, 2025eko abenduaren 18an egindako bilkuran 2026ko lanpostuen zerrenda onartu zuen. Lanpostuen zerrenda hori 2026ko urtarrilaren 19ko 11 zenbakidun GAOn argitaratu zen.

Espedientea aztertuta, lanpostuen zerrenda horretan hainbat lanposturen berariazko osagarrien zenbatekoan eta titulazio kodeetan akatsak atzeman dira.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikuluaren arabera, administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.

Horiek horrela, ikusita espedientean dagoen dokumentazioa eta Antolakuntzako informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, aho batez **ERABAKI DU:**

Lehena.- Zarauzko Udalaren 2026 urteko lanpostuen zerrendan ondorengo zuzenketak egitea:

— Honakoa dio:

ESKU557571db-c175-4c2f-86e8-378edb1c4a2b

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14) *Ded eta disp barne*	E/A	TITULAZIOA	BALDINTZA BEREZIAK *	HE	DER. DATA	LA	DED DISPN.
1.1.204	Artxibozaina (1)	1	E	L	A2	20	22.217,68	21	400		C2/C2	2023/12/21	1	1
1.1.207	Instalazioetako teknikaria (1)	1	E	L	A2	21	25.815,74	21	500	B gidabaimena	C1/C1	2025/04/25	1	1
1.1.48	Zeregin anitzeko ofiziala-gidaria	1	E	L	C1	18	17.403,98	22	300	B eta C gidabaimenak eta CAP (garraio gidarien lanerako gaitasun-agiria), bai eta hondeamakinarako baimena.	B1/B1	2013/12/18	1	1
1.1.138	Euskaltegiko irakaslea	7	E	L	A2	20	21.169,56	22	400		C2/ C2(TP)		2	1
1.1.138	Euskaltegiko irakaslea (%66,66)	2	E	L	A2	20	21.169,56	22	400		C2/ C2(TP)		2	1
1.1.138	Euskaltegiko irakaslea (%50)	2	E	L	A2	20	21.169,56	22	400		C2/ C2(TP)		2	1
1.1.184	Herritarren segurtasuneko ofizial arduraduna	1	B	I (*)	C1	22	49.285,96	22	300	B gidabaimena	C2/C2	2017/12/11	1	%10
1.1.173	Muntatze-lanetako koordinatzailea	1	E	L	C2	17	29.331,38	22	200	B gidabaimena	B2/B2	2013/12/18	2	% 20
1.3.129	Eskola instalazioetako zaintzailea	1	E	L	AP	15	23.265,04	22	100		B1/B1	2007/02/14	2	1
1.1.30	Mantentze-lanetako arduraduna	1	E	L	A2	23	28.042,02	21	493	B gidabaimena	C1/C1	1995/03/09	1	%5 (*)

– Honakoa esan behar du:

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14) *Ded eta disp barne*	E/A	TITULAZIOA	BALDINTZA BEREZIAK *	HE	DER. DATA	LA	DED DISPN.
1.1.204	Artxibozaina (1)	1	E	L	A2	20	22.217,68	21	416		C2/C2	2023/12/21	1	1
1.1.207	Instalazioetako teknikaria (1)	1	E	L	A2	21	25.815,74	21	490	B gidabaimena	C1/C1	2025/04/25	1	1
1.1.48	Zeregin anitzeko ofiziala-gidaria	1	E	L	C1	18	17.404,04	22	300	B eta C gidabaimenak eta CAP (garraio gidarien lanerako gaitasun-agiria), bai eta hondeamakinarako baimena.	B1/B1	2013/12/18	1	1
1.1.138	Euskaltegiko irakaslea	7	E	L	A2	20	20.129,12	22	400		C2/ C2(TP)		2	1
1.1.138	Euskaltegiko irakaslea (%66,66)	2	E	L	A2	20	20.129,12	22	400		C2/ C2(TP)		2	1
1.1.13	Euskaltegiko	2	E	L	A	20	20.129,1	22	400		C2/		2	1

ESKU557571db-c175-4c2f-86e8-378edb1c4a2b

8	irakaslea (%50)				2		2				C2(TP)			
1.1.184	Herritarren segurtasuneko ofizial arduraduna	1	B	I (*)	C1	22	49.286,04	22	300	B gidabaimena	C2/C2	2017/12/11	1	%10
1.1.173	Muntatze-lanetako koordinatzailea	1	E	L	C2	17	29.227,09	22	200	B gidabaimena	B2/B2	2013/12/18	2	% 20
1.3.129	Eskola instalazioetako zaintzailea	1	E	L	AP	15	18.052,01	22	100		B1/B1	2007/02/14	2	1
1.1.30	Mantentze-lanetako arduraduna	1	E	L	A2	23	30.741,59	21	493	B gidabaimena	C1/C1	1995/03/09	1	%5 (*)

Bigarrena.- 2026ko lanpostuen zerrendako kodeen zerrendan ondorengoak gehitzea:

	Boloniako titulazioa	**Bolonia aurreko titulazioa**	**Titulación Bolonia**	**Titulación pre-bolonia**
490	Industria arloko ingeniaritzan gradua	Industria Ingeniaritza Teknikoa	Grado en ingeniería de la rama industrial	Ingeniería Técnica Industrial
416	Artxibistikako gradua Informazio eta Dokumentazioko gradua	Artxibistikako diploma Informazio eta Dokumentazioko diploma	Grado en Archivística, Grado en Información y Documentación	Diplomatura en Archivística Diplomatura en Información y Documentación

Hirugarrena.- Akats zuzenketa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Zarauzko Udalaren webgunean argitaratzea.

7.- ZERBITZUAK ETA JARDUERAK EGITEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN 8. ORDENANTZA FISKALAREN ERANSKINEKO A), E), G), R) ETA T) ATALAK ALDATZEA

Espedientea: 2026C2100002

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20260428&punto=7

Akordio-zirriborroa irakurri ostean, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Aldeko botoak:	11	9 EAJ-PNV, 2 PSE-EE
Kontrako botoak:	–	
Abstentzioak:	9	9 EH Bildu

Beraz, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

Prezio publikoak ezarri eta antolatzeko proposamena Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 43. artikuluan eta hurrengoetan arautzen da; hori dela eta, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen

ESKU557571db-c175-4c2f-86e8-378edb1c4a2b

ZARAUZKO UDALA

dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.1 a) artikuluak toki-erakundeei ematen dien erregelamendu-ahala aintzat hartuta, prezio publikoak ezarri eta aldatu ahal izango dira Udalbatzarraren erabaki bidez, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arau horren 50. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Ez uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzekoak, ez apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzekoak ere, ez dute ezartzen prezio publikoak ezartzeko jarraitu beharreko prozedura, ez dute aipatzen ordenantza bidez egin behar denik, fiskala izan ala ez; eta horri dagokionez, Auzitegi Gorenaren 2000ko apirilaren 14ko Epaiaren arabera, "prezio publikoak, tributu izaerarik ez dutenez, Udalbatzarraren erabakiz ezarri edo aldatzen dira, ordenantza fiskalen prozedura bermatzaileari jarraitu beharrik gabe"; beraz, Udalbatzarrak hartutako erabaki arautzailea da prezio publikoak ezartzeko aukerarik egokiena.

Antolakuntzako Informazio Batzordean "Zerbitzuak eta jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituen 8. Ordenantza"ren eranskineko a), e), g), r) eta t) atalak aldatzeko proposamena aztertu dira**.**

Eta aipatutako Batzordeak hala proposatuta Udalbatzarrak, gehiengoz, **ERABAKI DU:**

Lehena.- Zerbitzuak eta jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituen 8. Ordenantzaren eranskineko a), e), g), r) eta t) atalak aldatzeko proposamena onartzea; honela geratuko dira idatzita:

8. ZERBITZUAK ETA JARDUERAK EGITEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK

ERANSKINA

a) UDAL EUSKALTEGIA

Tarifak ~~2025-2026~~ 2026-2027 ikasturtea	**€**
Aurrez aurreko ikastaroa/orduko	1,08
~~Jardun biko zerbitzua / orduko~~	~~1´90~~
Autoikaskuntza zerbitzua/orduko	2,70
C2 1 ikastaroa on-line/ orduko	3,50
~~C2 2 ikastaroa on-line/ orduko~~	~~1,90~~
Udako autoikaskuntza zerbitzua/ orduko	2,15
Erretiratuentzako ikastaroak	0,00

Ordaintzeko arauak:
Inskripzio-orria betetzearekin batera, ikasleak helbideratze-orria beteko du.
Ikastaroan izena ematen denean sortzen da horri dagokion prezio publikoa, eta epe batean edo hirutan ordaindu ahal izango da:

- Epe bakarrean, urriko lehen hamabostaldian
- Hiru epetan, ~~urriko, urtarrileko eta martxoko lehen hamabostaldian~~, bakoitzean herena.
  - Aurrez aurrekoek, urriko, azaroko eta abenduko lehen hamabostaldian.

ESKU557571db-c175-4c2f-86e8-378edb1c4a2b

- Autoikaskuntzakoek urriko, urtarrileko eta martxoko lehen hamabostaldian

Ikaslea aurrez aurreko taldean hasi eta autoikaskuntzara pasatzen bada, honela kobratuko zaio: aurrez aurrez egin dituen hilabeteak (aldaketa egiten den hilabetea barne) modalitate horri dagokion prezioarekin eta gainerakoak (aldaketa egin eta hurrengo hilabetetik aurrera) autoikaskuntzako prezioarekin. ~~; hau da, proportzionalki ordaindu beharko ditu aurrez aurre eta autoikaskuntzan egin dituen hilabeteak.~~

Bajak emateko prozedura

Ikastaroa hasi eta gero bajaren bat baldin badago, honela ordainduko dira kuotak:

- Itxaron-zerrendan ikasleak baldin badaude, baja eman duena ordezkatu egingo da, eta ez du kuota gehiago ordainduko.
- Itxaron-zerrendan ikaslerik ez badago, baja eman duen ikasleak ikasturte osoa ordaindu beharko du.

Ikastaroaren prezioaren zenbatekoa ez da itzuliko.

Matrikula egitearekin batera, ikasleak onartu egingo ditu Euskaltegiko arauak.

e) ZARAUZKO TURISMO BULEGOA

Tarifak (BEZ sartuta)	**€**
Boligrafoa	2´00
Bisera	10,00
Libreta	3´00
Arkatza ~~(Swarovski)~~	2´00
Motxila	5´00
Balea	18´00
Posterra	4´00
~~Sisters poltsa~~	~~12´00~~
~~Sisters motxila~~	~~14´00~~
Sisters koadernoa	10´00
~~Sisters liburua~~	~~16´00~~
Sisters giltzatakoa	10´00
"Toldotxo" platera	6´00
Likidoentzako bidoia	5´00
Margoak	2´00
Erraldoiak	18´00
Katilua	8´00
Sokadun motxila	6´00
Aterkia	20´00
Euritako txapela	8´00
Imana	2´50
Libreta handia	10´00
Botila inox	10´00
Bolaluma jokoa	20´00
Giltzatakoa (logo)	7´00

g) UDAL KIROL DEPARTAMENTUA

ESKU557571db-c175-4c2f-86e8-378edb1c4a2b

g.1) Udal kirol instalazioetako jarduerak, erabilerak eta prozedurak udal-araudiaren eta/edo berariazko araudiaren bidez arautuko dira. Une oro Udala izango da organo eskuduna, Kirol Departamentuaren bitartez, beharrezkoak diren erabaki guztiak hartzeko.

g.2) Abonu-tarifa

Hileko abonu-mota	**Tarifa orokorra, €**
FAMILIAK-Bizikidetza unitateak	
Familiarena	39´68
Guraso bat gehi seme-alaba bat	30´53
Guraso bat gehi bi seme-alaba edo gehiago	33´59
BANAKAKOAK	
Haurtxoak (0tik 2 urte artekoak)	0´00
Haurrak eta nerabeak (3tik 22 urte arte)	12´21
Gazteak (23tik 26 urte arte)	18´07
Helduak I (27tik 64 urte arte)	24´43
Helduak II (65etik 79 urte arte)	12´21
Helduak III (80 urte edo gehiago)	0´00

g.2.1. Abonatu-alta berriek matrikula ordaindu behar dute; abonu-tarifaren hilabete bateko prezioa izango da.

g.2.2. Abonu-tarifaren ordainketa modu hauetan egin daiteke: helbideratuta; transferentzia eginda Udaleko kontu korronte batera; edo kreditu-txartel bidez Aritzbatalde kiroldegiko harreran.

g.2.3. Ezingo dira instalazioak erabili abonu-tarifa ordaindu dela justifikatu eta Kirol Departamentuak onartu arte

g.2.4. Kirolari federatuek hileko abonatu-tarifa ordaindu behar dute Udalaren jabetzako edota Udalak hitzarmen bidez baimenduta dituen ikastetxeen jabetzako instalazioak erabiltzeko.

g.2.5. Abonu-tarifa ordaindu beharrik ez izateko beharrezkoa da ordaintzetik berariaz salbuetsita egotea, indarrean dagoen alkatetza-dekretuaren ~~edo Kirol Departamentuaren baimen idatziaren~~ bidez

g.2.5.1. Kirolari federatuen kasuan, kirol elkarteak Udalarekin hitzartuta dituen baldintzen arabera zehaztuko da salbuespena, baldin eta kirol elkartearen dimentsioak, antolatzen dituen interes publikoko ekitaldi kopuruak eta Zarauzko kirol politikak zein baldintzek horretarako aukera ematen badute.

g.2.5.2. Administrazioak izendatuta dituen goi-mailako kirolarien kasuan, salbuespena aplikatuko da goi-errendimenduko froga prestatzeko behar duen denboran zehar.

~~g.2.5.3. Hezkuntza departamentuari dagozkion ikasturte osoko erabileren kasuan, ikastetxe-entitate eskatzaileak aukera izango du, instalazioaren alokairu prezioa ordaindu ordez, ikasle bakoitzari abonu-tarifa egiteko. Betiere, entitatearen erantzukizunean kudeatuz gai honi dagokion oro~~

g.2.5.~~4~~ 3. Mendekotasun egoeran dauden pertsonei, itsuei edo ikusmen-urritasun larria dutenei eta gurpil-aulkien erabiltzaileei laguntza ematera doazen pertsonek doako sarrera izango dute, eta konpainia-funtzioa betetzeko behar den denbora baino ezin izango da egon instalazioetan

g.2.6. Tarifa arruntei aplikaturiko hobariak:

ESKU557571db-c175-4c2f-86e8-378edb1c4a2b

g.2.6.1. Tarifa soziala: Udal prezio publikoei buruzko araudian —14. Ordenantza — zehazten diren irizpide tekniko, prozedura eta baldintzen arabera aplikatuko da. Tarifa sozialaren onuradun izateko eskubidea dutenek matrikulan %100eko hobaria izango dute. Tarifa sozialaren hobaria duten familia-unitateei ez zaie aplikatuko banakako abonu-tarifa 23 urtetik aurrera.

g.2.6.2. Familia ugarientzat, guraso bakarreko familientzat aplikaturiko hobaria: Udal prezio publikoei buruzko araudian —14. Ordenantza — zehazten diren irizpide tekniko, prozedura eta baldintzen arabera aplikatuko da. Hobari hau ez da automatikoki aplikatuko, eskaera espezifikoa egin beharko da horretarako.

Familia onuradunei hobari hauek aplikatuko zaizkie:

Hileko abonu mota	**Hobaria**
Hileko abonu kuotak, familiak	% 30
Hileko abonu kuotak, banakakoak haurrak eta nerabeak (3tik 22 urte artekoak)	% 30
Hileko abonu kuotak, banakakoak, gazteak	% 30
Alta berrien matrikula	% 50

g.2.7. Adinari dagokion abonatu motaren eta tarifaren aldaketa ofizioz aplikatuko da, eta jaiotegunaren hurrengo hilabetean izango du eragina.

g.2.8. Abonatu-tarifa familiarra duen adingabeari helduen banakako abonatu-tarifa aplikatuko zaio, ofizioz, 23 urte bete eta hurrengo hilabetean, adin-aldaketak tarifa-motan eragiten duen aldaketagatik.

g.2.9. Familia-unitatea honako hauek osatuko dute:

- Eskatzaileak,
- Bere ezkontideak (ezkontza-deuseztatze, banantze edo dibortziorik ez badago) edo izatezko bikote modura eskatzailearekin batera bizi den pertsonak (behar bezala frogatuta baldin badago), eta
- Bere zaintzapean etxebizitza berean bizi diren seme-alabek (23 urtetik beherakoak). Familia liburua aurkeztuko da.

g.2.10. Abonatu-tarifetan altak, bajak edo datuen aldaketak egiteko, indarrean dagoen inprimaki ofiziala eta dagozkion dokumentuak aurkeztu behar dira, Udalak tramitatu eta ontzat emateko. Inprimakiak egoki beteta, data jarrita eta sinatuta egon behar du, tramitatu ahal izateko.

g.2.11. Abonatu-tarifetan alta emateko prozedura:

g.2.11.1. Instalazioak erabiltzeko, indarrean dagoen inprimaki ofiziala beteta, sinatu, dagokion dokumentazioa aurkeztu, eta abonu-tarifa ordaindu egin behar da. Inprimakia eta dokumentazioa Aritzbatalde kiroldegiko harreran entregatu behar dira. Inprimakiaren data ofiziala harreran aurkezten den egunekoa izango da.

g.2.11.2. Abonatu-alta hileko edozein egunetan onartuta ere, hilabete hori osorik ordaindu beharko du titularrak. Abonu-tarifak hilero eta automatikoki kobratzen jarraituko du Udalak, harik eta berariaz (idatziz eta ezarritako epean zein moduan) abonatu-baja eskatu eta Udalak onartu arte edo Udalak ofizioz baja eman arte.

~~g.2.11.3. Abonu-tarifa honela ordaindu daiteke:~~

- ~~Ordainketa helbideratuta: Udalak automatikoki kobratuko ditu tarifak hilaren lehenengo astean.~~
- ~~Udalari egindako transferentzia bidez: helbideratu gabeko abonu-tarifak hilabete bakoitzeko lehenengo 5 lanegunetan ordainduko ditu abonatuak.~~
- ~~Kreditu-txartelaren bidez (Aritzbatalde kiroldegiko harreran) hilabete bakoitzeko lehenengo 5 lanegunetan ordainduko ditu abonatuak.~~

Abonu-tarifa ordaindu dela justifikatu eta Udalak onartu arte ezin dira instalazioak erabili.

ESKU557571db-c175-4c2f-86e8-378edb1c4a2b

Banketxeak ordainagiria atzera botatzen badu, edo helbideratu gabeko ordainketak dagokion moduan eta epean egiten ez badira, abonatuari ofizioz baja emango zaio, eta zorretan geratuko da diru-kopurua ordaindu arte.

g.2.12. Abonatu-tarifetan baja emateko prozedura:

g.2.12.1. Abonatu-tarifan baja emateko, inprimaki ofiziala bete eta sinatu behar da, Udalak tramitatu eta ontzat eman dezan.

g.2.12.2. Baja-eskaera aurkezteko bideak:

a) Aurrez aurreko eskaera: Aritzbatalde kiroldegiko harreran edo Udaleko Herritarren Arreta Zerbitzuan.
b) Eskaera telematikoa: kirola@zarautz.eus helbidean edo udal erregistro elektronikoan (Zarautz.eus).

g.2.12.3. Abonatu-tarifan bajaren eskaerak ez dakar automatikoki baja ematea. Udalak, baja-eskaera aztertu eta kudeatu ondoren, aplikatu egingo du, hala badagokio

g.2.12.4.Abonatu-tarifan baja aplikatzeko epea:

a) Hilaren 25a baino lehen eskatutako baja: Kirol Departamentuak onartu eta hurrengo hilean izango du eragina.
b) Hilaren 25ean edo hortik aurrera hila amaitu arte aurkeztutako baja-eskaerak, ordea, ez dira zuzenean hurrengo hilean gauzatuko, haren ondorengoan baizik. Beraz, eskatzaileak hurrengo hilean altan jarraituko du, eta dagokion kuota ordainduko du.

g.2.12.5. Ofizioz emandako bajak: Udalak abonatu-tarifan baja emango du, ofizioz, intzidentzia, gertaera edo beste egoera baten aurrean kautela-neurri gisa hala erabakitzen badu. Kasu horietan, ez zaio abonatu-tarifa kobratuko baja eman den dataren hurrengo hilabetetik aurrera.

g.3) **Sarrera-tarifa**

Sarrera-mota	**Tarifa (€)**
Eguneko sarrera, 18 urtetik beherakoak	3,70
Eguneko sarrera, 18 urtetik gorakoak	6,60
Bonua: 10 sarrera, 18 urtetik behera	34,10
Bonua: 10 sarrera, 18 urtetik gora	57´00

g.3.1. Sarrera-tarifak honela ordaindu daitezke: eskudirutan edo kreditu-txartel bidez, Aritzbatalde kiroldegiko harreran. Abonu-tarifa ordaindu arte ezingo da instalazioa erabili. Ezin izango da instalazioa erabili abonu-tarifa ordaindu arte

g.3.2. Bonuen iraungitze-epea eskuratze-datatik urtebetekoa izango da.

g.4) **Beste zerbitzu batzuen tarifa**

Beste zerbitzu batzuk	**Tarifa (€)**
Kirol material txikia (bainu-txanoak, eskuoihalak, etab.)	6´00
Galdutako edo puskatutako txartelak/giltzak berritzea	3´50

g.4.1. Beste zerbitzu horiek honela ordaindu daitezke: eskudirutan edo kreditu-txartel bidez, Aritzbatalde kiroldegiko harreran.

g.5) **Alokairu-tarifa (Aritzbatalde, Lizardi kirol aretoa eta Asti)**

~~Alokairu-mota (Aritzbatalde, Lizardi eta Asti)~~	~~Tarifa (€)~~
~~Pista edo aretoak, orduko, aldagelarik gabe~~	~~43,50~~

ESKU557571db-c175-4c2f-86e8-378edb1c4a2b

~~Pista edo aretoak, orduko, aldagelarekin~~	~~58´00~~
~~Frontoia, orduko abonatuak~~	~~17´00~~
~~Frontoia, orduko ez abonatuak~~	~~23,35~~
~~Frontoia hiruhilekoa, abonatuak, orduko~~	~~14,30~~
~~Frontoia hiruhilekoa, ez abonatuak, orduko~~	~~20,65~~
~~Squash abonatuak~~	~~1,00~~
~~Squash ez abonatuak~~	~~6,55~~
~~Igerilekua, kalea/orduko~~	~~48,45~~
~~Astiko joko zelaia, orduko, aldagelarik gabe~~	~~43,50~~
~~Astiko joko zelaia, orduko, aldagelarekin~~	~~58´00~~
~~Dutxa pertsonako~~	~~1,70~~

Alokairu-mota	**Abonatuak, €**	**Ez abonatuak, €**
Pista edo aretoak, orduko	43,50	87´00
Frontoia, orduko	17´00	34,00
Frontoia, hiruhilekoa, orduko	14,30	-
Squasha, orduko	0,00	6,00
Igerilekua, kalea/orduko	48,45	96,90
Astiko joko zelaia, orduko	43,50	87,00
Padel pista, orduko	12,00	24,00
Padel pista, ordu eta erdiko	18,00	36,00
Dutxa pertsonako	-	3,00

~~g.5.1. Instalazioak erabiltzeko beharrezkoa da indarrean dagoen eskabide-orri ofiziala bete, sinatu, dagokion dokumentazioa aurkeztu, eta alokairu-tarifa ordaintzea.~~

~~g.5.2. Alokairu-tarifak honela ordaindu daitezke: ordainketa helbideratuta; diru-transferentzia Udaleko kontu korronte batera eginda; edo kreditu-txartelaren bidez, Aritzbatalde kiroldegiko harreran ordainduta. Alokairu-tarifa ordaindu dela justifikatu arte ezingo da instalazioa erabili.~~

g.5.1. Alokairu-tarifa ordainduta, sarrera-tarifa ordaintzetik salbuesten da.

g.5.2. Alokairu-tarifaren baitan sartuta daude aldagelak, padel pistetan izan ezik.

g.5.3. Instalazioak erabiltzeko beharrezkoa da indarrean dagoen eskabide-orri ofiziala bete, sinatu edo eta, beharko balitz, dagokion dokumentazioa aurkeztu eta alokairu-tarifa ordaintzea; padel pistaren kasuan, on line egiteko aukera egongo da. Behin ordainketa eginda, alokairu-tarifaren ordainketa ezin da ezeztatu.

g.5.~~3~~4. Indarrean dagoen alkate-dekretu bidez berariaz tarifa ordaintzetik salbuetsita dauden kasuak: g.5) Udal kirol instalazioen alokairu-tarifa (Aritzbatalde, Lizardi kirol aretoa eta Asti) puntuari dagokion prezio publikoa ordaindu beharrik ez dute izango honako hauek:

g.5.~~3~~.4.1. Estatuak, autonomia erkidegoek eta toki erakundeek, udalaren jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik, zuzenean ustiatzen dituzten komunikazio-zerbitzu publikoen berezko aprobetxamenduengatik, eta herritarren segurtasunari edo defentsa nazionalari berehala interesatzen zaizkion guztiengatik.

g.5.~~3~~. 4.2. Udalaren jabetza publikoaren barruan ikus-entzunezko lan bat egin nahi duten eskatzaileek, baldin eta tartean interes komertzialik ez bada eta grabazioak kaleko zein barruko jardunean eraginik edo kalterik eragiten ez badu.

g.5.~~3~~. 4.3. Onura publikokotzat jotako fundazioek, elkarteek eta interes orokorreko helburuak dituzten gainerako entitateek, baldin eta dagokion erroldetan hala ageri badira eta beren xedeari lotutako ekintzaren bat egiteko udal jabariaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia egiten badute.

ESKU557571db-c175-4c2f-86e8-378edb1c4a2b

ZARAUZKO UDALA

g.5.3. 4.4. Irabazi asmorik gabeko eta interes orokorreko jarduerak antolatzen dituzten norbanakoek.

~~g.5.3.5. Zarauzko Herritarren informazio-batzordea osatzen duten udal departamentuek zuzenean edo bere babespean eta ardurapean beste entitate batzuek antolatutako interes publikoko erabilerak. Horretarako, aldez aurretik Kirol Departamentuaren oniritzia beharko dute idatziz, eta bertan jarritako erabilera-baldintzak bete eta betearaziko dituzte~~.

g.6). **Ikastaroak**

Ikastaroak, hileko prezioak	**Abonatuak, €**	**Ez abonatuak, €**
Aretoetan, saio 1 astean	~~16,17~~ 16,54	~~31,15~~ 31,87
Aretoetan, 2 saio astean	~~32,28~~ 33,02	~~59,71~~ 61,08
Aretoetan, 3 saio astean	~~43,43~~ 44,43	~~70,95~~ 72,58
Igerilekuetan, saio 1 astean	~~18,93~~ 19,36	~~33,90~~ 34,68
Igerilekuetan, 2 saio astean	~~38,50~~ 39,38	~~65,93~~ 67,45
Igerilekuetan, 3 saio astean	~~55,92~~ 57,21	~~83,45~~ 85,37
Udal programa aktibo, saio 1 astean	~~14,44~~ 14,77	
Udal programak aktibo jarraiak, orduko	~~5,41~~ 5,53	
Prestakuntza, bazkideak, 30 minutu	~~32,45~~ 33,20	
Prestakuntza, bazkideak, 60 minutu	~~54,08~~ 55,32	
Ikastaroak, hiruhileko	**Abonatuak, €**	**Ez abonatuak, €**
Igerilekuetan, umeen ikastaroak, saio 1 astean	~~51,43~~ 52,61	~~88,10~~ 90,13
Igerilekuetan, umeen ikastaroak, 2 saio astean	~~102,86~~ 105,22	~~176,13~~ 180,18
Igerilekuetan, helduen ikastaroak, saio 1 astean	~~56,78~~ 58,08	~~101,77~~ 104,11
Igerilekuetan, helduen ikastaroak, 2 saio astean	~~113,52~~ 116,13	~~199,56~~ 204,15
Igerilekuetan, haurtxoen ikastaroak, saio 1 astean (zerbitzu berria, igoerarik gabekoa)	~~82,01~~ 83,90	~~82,01~~ 83,90

g.7). **Udal Programak**

~~Zarauzko udalak, kirol departamentuaren bidez, zerbitzu jakin bat interes publikoko udal programa izendatzeko baldintzak honakoak dira: 2/2023 LEGEA, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolarena edo eta eratorritako Dekretu zein Foru Aginduen baitako programa izatea edo Alkatetzaren Dekretu bidez izendapena jaso izana.~~

~~Aipatutako Udal Programak hauek dira:~~

- ~~Igeriketa eskola sustapen kanpaina~~
- ~~Dibertsitate funtzional aktibo programa~~
- ~~Gazte aktibo programa~~
- ~~Emakumeok mugimenduan programa~~
- ~~KOZ programa~~
- ~~Senior aktibo programa~~
- ~~Goi mailako kirolariak programa~~
- ~~Gizarte zerbitzuetatik eratorrita, zaurgarrientzat programa~~

Zarauzko Udalak, Kirol Departamentuaren bidez, zerbitzu jakin bat interes publikoko eta inbertsio sozialeko udal programa izendatzeko baldintzak honakoak dira: halakotzat aitortzea martxoaren 30eko 2/2023 LEGEAk, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolarenak, edota hortik eratorritako Dekretu zein Foru Aginduen baitako programa izatea, edo Alkatetzaren Dekretu bidez edo Kirol Departamentuaren bidez hala izendatu izana. Kirol Departamentuak definitutako berariazko kudeaketa sistema izango dute eta Kirol Departamentuaren eskumenekoak izango dira programa aktibatzeko aukera eta erabaki guztiak.

ESKU557571db-c175-4c2f-86e8-378edb1c4a2b

g.7.1) Eskola umeek igerian ikasteko sustapen jarduerak:

g.7.1.1) Araudi oinarria: 17/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzarena, eta Foru Aldundiaren Gipuzkoako eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko jardueren programa- Kiroletan hasteko jarduerak.

g.7.1.2) Ikasturte bakoitzeko ezaugarriak Zarauzko hezkuntza-programan definitzen dira.

g.7.1.3) Ikastetxeen erantzukizuna eta ardura da hezkuntza programan definitzen diren ezaugarriak erabilerari dagozkionak betetzea.

g.7.2) Gazte aktibo programa:

g.7.2.1) Foru Aldundiaren plan estrategikoaren oinarri eta ildoen baitan kokatzen da programa.

g.7.2.2) Aritzbataldeko eskaintzan berariazko kudeaketa-sistema Zarautzen erroldatutako 12-15 urteko gazteentzat (sustapen jarduerak, lehenetsitako ordutegiak, taldea ateratzeko gutxienekoen muga...)

g.7.3) Ikasle aktibo programa:

g.7.3.1) Zarauzko ikastetxeetako ikasturte osoko eskola-orduetan Aritzbataldeko kiroldegiko frontoia, kantxa eta igerilekua erabili nahi direnean.

g.7.3.2) Instalazioaren alokairu-prezioa ordaindu ordez, ikasle bakoitzari hilero dagokion abonu-tarifa ordaindu diezaioke entitate eskatzaileak Udalari (lehen 5 egunen baitan), ordainketa helbideratuta edo transferentzia bidez eginda. Ordaindu gabe instalakuntza erabiltzeko baimena bertan behera geratuko da.

g.7.3.3) Entitate eskatzailearen erantzukizuna eta ardura da erabilera eta horren kudeaketa.

g.7.4) Senior aktibo programa

g.7.4.1) Foru Aldundiaren plan estrategikoaren oinarri eta ildoen baitan kokatzen da programa.

g.7.4.2) Aritzbatalde kiroldegian soinketa ikastaroa doan, Zarautzen erroldatutako 65 urtetik gorako herritarrentzat.

g.7.5) Dibertsitate funtzional aktibo programa:

g.7.5.1) Foru Aldundiaren plan estrategikoaren oinarri eta ildoen baitan kokatzen da programa.

g.7.5.2) Aritzbatalde kiroldegiko eskaintzan berariazko kudeaketa-sistema Zarautzen erroldatutako behar berezia duen herritarrarentzat:

g.7.5.2.1- Talde inklusiboa igerilekuan (Foru Aldundian, *Sartu* estrategia) 3-11 urteko haurrak.

g.7.5.2.2- Bakarka igerilekuan- Izurde (Foru Aldundian, *Segi* estrategia 3-11 urteko haurrak.

g.7.5.2.3- Ur egokifit igerilekuan- 16 urtetik gorako erabiltzaileak.

g.7.5.2.4- Egokifit aretoan- 16 urtetik gorako erabiltzaileak.

g.7.5.3) Kirol orientazio zerbitzutik bideratu, jarraitu eta baloratuko dira erabiltzaileak, programa.

g.7.6) Emakumeok mugimenduan programa

g.7.6.1) Foru Aldundiaren plan estrategikoaren oinarri eta ildoen baitan kokatzen da programa.

g.7.6.2) Aritzbataldeko kiroldegiko zerbitzuetan berariazko kudeaketa sistema Zarautzen erroldatutako emakumeentzat (sustapen jarduerak, lehenetsitako ordutegiak eta aretoak etab.).

g.7.7) Kirol orientazio zerbitzua (KOZ) programa

ESKU557571db-c175-4c2f-86e8-378edb1c4a2b

g.7.7.1) Foru Aldundiaren plan estrategikoaren oinarri eta ildoen baitan kokatzen da programa.
g.7.7.2) Aritzbataldeko kiroldegiko doako aholkularitza zerbitzua; helburua pertsona aktibo izateko bidean laguntzea.

g.7.8) Gizarte Zerbitzuetatik eratorrita, egoera zaurgarrian dauden herritarrentzako programa
g.7.8.1) Zarauzko Udalaren plan estrategikoaren oinarri eta ildoen baitan kokatzen da programa.
g.7.8.2) Gizarte Zerbitzuetako Departamentuak txosten bidez Kirol Departamentuari eskaera egin eta Kirol Departamentuak aldeko oniritzia emango balu, Aritzbatalde kiroldegiko zerbitzu-kuotak doan izango dira edo murriztu egingo dira.

r) UDAL MUSIKA ESKOLA

~~2025-2026~~ 2026-2027 ikasturtea

Ikasgaia	**Matrikula (€)**	**Ikastaroaren prezioa (€)**
Musika hizkuntza (haurrak)	~~44,10~~ 45´40-	~~220,70~~ 227´10
Musika hizkuntza (helduak)	~~44,10~~ 45´40	~~342,00~~ 352´00
Instrumentua	~~44,10~~ 45´40	~~441,30~~ 454´10
Musika tailerra	~~44,10~~ 45´40	~~342,00~~ ~~352´00~~
Instrumentu multzoak	~~44,10~~ 45´40	~~242,70~~ 249´70
Kantu korala	~~44,10~~ 45´40	~~242,70~~ 249´70
Musikoterapia	~~44,10~~ 45´40	~~386,20~~ 397´40

t) GAZTERIA DEPARTAMENTUA

NERABEEN BALIO ANITZEKO ZERBITZUA: EKINTZA BEREZIAK

TARIFA	**€**
100,00 € - 300,00 € arteko aurrekontua	2,50
300,00 € - 600,00 € arteko aurrekontua	4,50
600,00 € - 1.000,00 € arteko aurrekontua	6,50
1.000,00 € - 2.000,00 € arteko aurrekontua	8,50
2.000,00 €tik gorako irteerak (Euskal Herri osoan, Nafarroa eta IHko lurraldeak barne)	16,00

HAURREN BALIO ANITZEKO ZERBITZUA: EKINTZA BEREZIAK

TARIFA	**€**
500,00 € arteko aurrekontua	2,50
500,00 € - 1000,00 € arteko aurrekontua	4,50-
1000,00 € – 2000,00 € arteko aurrekontua	6,50
Irteerak gaua pasatzera 2-3 egun	10,50

~~Haurren eta nerabeen balio anitzeko zerbitzurako oharra: 2 anai-arreba direnean, kuotaren zenbatekoa %15 jaitsiko zaio bigarrenari.~~

Bigarrena.- Ebazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 45.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, eragina izan dezaten.

ESKU557571db-c175-4c2f-86e8-378edb1c4a2b

ZARAUZKO UDALA

8.- ZARAUZKO UDAL MUGAPEKO KALE-GARBIKETA ETA ANTZEKO ZERBITZUAK. PREZIO BERRIKUSPENA

Espedientea: 2021IK200001

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20260428&punto=8

2021eko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Udalbatzarrak ZARAUZKO UDAL MUGAPEKO KALE-GARBIKETA ETA ANTZEKO ZERBITZUAK egiteko kontratua adjudikatzeko administrazio-klausulen eta baldintza teknikoen agiriak onartzea eta deialdia egitea erabaki zuen.

2021eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak ZARAUTZ GARBIA UTE enpresari adjudikatu zion lan hori egiteko kontratua, urteko 1.442.341,97 eurotan, BEZa barne (1.311.219,97 euro + 131.122,00 euro BEZa). Kontratua 2021eko maiatzaren 20an sinatu zen, eta hasiera-akta 2021eko maiatzaren 28an. Azken horretan, zerbitzua 2021eko ekainaren 1ean hastea adostu zen.

2022ko azaroaren 24an, 2023ko apirilaren 27an, 2024ko apirilaren 25ean eta 2025eko martxoaren 27an egindako bilkuretan, Udalbatzarrak, hurrenez hurren, kontratua aldatzea eta kontratuaren prezioa berrikustea erabaki zuen. Azken bilkuran, urteko prezio totala 1.832.423,90 eurotan finkatu zen (BEZa barne).

2026ko otsailaren 20an, Herrilan, Azpiegitura eta Zerbitzuetako Departamentuak prezioen berrikuspenari buruzko 0094/2026 txostena egin du. Administrazio-klausulen agirien zazpigarren klausulak aurreikusten du kontratuaren prezioa berrikusi egingo dela, eskulanaren kostuari dagokionez. Horri jarraikiz, honako emaitza hau lortzen da: 1.374.345,72 euro, BEZa barne (1.249.405,20 euro + 124.940,52 euro BEZa).

Lurralde arloko Informazio Batzordeak proposamena onartzearen aldeko irizpena eman du, 2026ko apirilaren 16an egindako bileran.

Hori guztia kontuan hartuta, Udalbatzarrak aho batez honako hau **ERABAKI DU**:

Lehena.- ZARAUZKO UDAL MUGAPEKO KALE-GARBIKETA ETA ANTZEKO ZERBITZUAK emateko ZARAUTZ GARBIA UTE enpresarekin sinatutako kontratuaren prezioa berrikustea, eskulanaren kostuaren berrikuspena kontuan hartuta, ondoren adierazten den moduan (BEZa sartuta):

KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
1. LANGILEEN KOSTUAK	1.249.405,20 €
2. KONTSERBAZIO ETA MANTENTZE-LANETAKO KOSTUAK	126.815,47 €
3. BESTE KOSTU BATZUK	60.042,67 €
4. INBERTSIOEN AMORTIZAZIOA ETA FINANTZIAZIOA	122.503,45 €

ESKU557571db-c175-4c2f-86e8-378edb1c4a2b

GASTU OROKORRA ETA ETEKIN INDUSTRIALA (%9)	140.289,01 €
BEZa (%10)	169.905,58 €
ZERBITZUAREN KOSTUA GUZTIRA:	1.868.961,38 €

Bigarrena.- Prezioen berrikuspena aplikatu ondoren, 2026ko maiatzaren 21etik 2027ko maiatzaren 20ra bitartean hau izango da zerbitzuagatik ordaindu beharreko zenbatekoa: 1.868.961,38 euro, BEZa barne.

9.- SENIDETZEA ETA ELKARTRUKEKO DIRULAGUNTZEN OINARRI ESPEZIFIKOEN AKATS ZUZENKETA

Espedientea: 2026L13300001

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20260428&punto=9

2024ko urtarrilaren 25ean egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak dirulaguntzen oinarri espezifikoak onartu zituen, horien artean SENIDETZEA ETA ELKAR-TRUKEKO DIRULAGUNTZEN OI-NARRI ESPEZIFIKOAK. Iragarkia 2024ko apirilaren 15ean argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (72. zk.).

Ikusi da onartutako testuan transkripzio akats bat dagoela, eta nahiz eta oinarrien funtsa aldatu ez, ezin dira oinarrietan azaldu, eta testuaren aldaketa egin behar da.

39/2015 legearen 109 artikuluan, 2. atalean dio:
Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.

Horretan oinarrituta eta 2024 eta 2025eko dirulaguntzetan eraginik ez duela egiaztatuta, Hezkuntza departamentuak proposatzen du oinarri espezifikoetako parrafo zehatz batzuk kentzea, bai euskarazko eta bai gaztelerazko bertsioetan.

1 Euskarazko dokumentuan akats zuzenketa:

Hezkuntza departamentuak aldeko txostena egin du. (2026ko apirilaren 1eko txostena)

Parrafo hauek kendu

1.puntua
~~Espresuki dirulaguntzen emakidatik kanpo utziko dira kultura- edo gizarte-elkarte eskatzaileek zuzenean egiten ez dituzten programak eta jarduerak.~~

~~3. puntuan~~
~~Dirulaguntzen onuradun izateko baldintzak:~~

ESKU557571db-c175-4c2f-86e8-378edb1c4a2b

~~Kultur jarduera edo programetarako dirulaguntza horiek Zarauzko irabazi-asmorik gabeko kultura- edo gizarte-arloko elkarteek eskatu ahal izango dituzte, legearen arabera eratuak eta dagozkien erregistroetan inskribatuak, behar den IFZ dutenak eta beren jarduera batik bat Zarauzko udalerrian garatzen dutenak.~~

~~Salbuespen gisa, Hezkuntzako zinegotziak proposatu eta hala zehazten den kasuetan, Zarauztik kanpoko entitateek ere jaso ahal izango dituzte dirulaguntzak, hain zuzen ere bere jardueren zati nabarmen bat udalerriaren barruan garatzen bada edo udalerriarentzat interesgarri jotzen bada.~~

10. puntuan. Jarduera ekonomikoa

~~pertsona edo~~

12. puntuan

~~Onuradunek, gainera, jasotako dirulaguntzen eta laguntzen berri eman beharko dute, zenbatekoa eta helburua edo xedea adierazita, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean jarritako moduan eta baldintzetan, honako kasu hauetan:~~

~~Erakunde pribatuek urtebeteko epean 100.000 eurotik gorako laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzen dituztenean, edo urteko diru-sarrera guztien % 40 gutxienez laguntza edo dirulaguntza publikokoak direnean, baldin eta gutxienez 5.000 eurora iristen badira.~~

~~Interes sozial edo kulturaleko helburuak besterik ez dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeak badira, eta 50.000 eurotik beherako aurrekontua badute, jasotako laguntza edo dirulaguntza publiko gehienen jatorri den administrazio publikoak haien esku jarritako bitarteko elektronikoak erabili ahal izango dira lege honetatik eratorritako betebeharrak betetzeko.~~

2 Gaztelerazko dokumentuan akats batzuk zuzentzea

1. puntua

~~las asociaciones culturales o sociales sin ánimo de lucro y personas,~~

Eta bere ordez jarri: “los centros escolares”

~~en los siguientes ámbitos~~

2. puntua

Lehen parrafoa honela idatzi:

“Podrán solicitar estas subvenciones los centros escolares del municipio de Zarautz, legalmente constituidas e inscritas en los registros correspondientes, que cuenten con el NIF correspondiente.”

10. puntuan Jarduera ekonomikoa

1c puntua (“memoria ekonomikoa”) honela idatzi:

ESKU557571db-c175-4c2f-86e8-378edb1c4a2b

Una declaración responsable, firmada por el/la Tesorero/a del centro educativo, de la totalidad de ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y su procedencia

Herritarren Informazio Batzordeak proposamena onartzearen aldeko irizpena eman du, 2026ko apirilaren 16an egindako bileran.

Hori guztia kontuan hartuta, Udalbatzarrak aho batez honako hau **ERABAKI DU**:

Lehena.- 2024ko urtarrilaren 25ean osoko bilkuran onartutako Senidetze eta Elkartrukeko euskarazko eta gaztelerazko oinarri espezifikoetan 1. 2. 3. 10. eta 12. puntutan antzemandako akatsak zuzentzea

Bigarrena.- Akordio honen berri eta dirulaguntzen oinarri espezifikoak argitaratzea Gipuzkoa Aldizkari Ofizialean eta Udalaren webgunean

10.- ESKARI-GALDERAK

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20260428&punto=10

Puntu honetan inork ez du hitzik hartu.

Alkateak iragarri du, duela 25 urte elkarteen lehen danborradaren antolatzaileak izango direla aurten San Pelaio jaien hasierako bandera igoko eta txupinazoa botako dutenak.

Azkenik, batzarburu jaunak hala aginduta, osoko bilkurari amaiera eman diote, arratsaldeko zazpiak eta hogeita hamabostetan, eta nik, idazkari akzidentalak, horren guztiaren fede ematen dut.

ESKU557571db-c175-4c2f-86e8-378edb1c4a2b

ZARAUZKO UDALA

ACTA Nª 5 DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA POR EL PLENO DE LA CORPORACIÓN EL DÍA 28 DE ABRIL DE 2026

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de la Villa de Zarautz y siendo las diecinueve horas del día 28 de abril de 2026, se reúne el Pleno de la Corporación, al objeto de celebrar la sesión ordinaria previamente convocada para estos día y hora.

Asisten los Sres. Concejales que a continuación se indican:

Presidente D. Xabier Txurruka Fernandez

Concejales
Dª. Garbiñe Oiarbide Iruretagoiena
Dª. Irune Urbieta Alberdi
D. Jesus Arana Gomez
D. Iban San Martin Hernandez
Dª. Leire Arana Olabarrieta
D. Gervasio Gabirondo Fernandez
Dª. Estibaliz Agirre Uranga
Dª. Naiara Mendivil Ayerza
Dª. Itziar Murua Uria
D. Ion Arozena Eizagirre
Dª. Ainara Landa Argote
D. Mikel Agirre Etxaniz
Dª. Ainhize Larramendi Larrarte
D. Ander Lucas Aranceta
D. Jesus Goikoetxea Balentziaga
Dª. Eider Gurrutxaga Larrañaga
Dª. Garazi Olaizola Irureta
Dª. Gloria Vazquez Herranz
D. Inaxio Illarramendi Lizarreta

No asiste: D. Iker Basurko de Miguel

Secretario accidental D. Xabier Aranburu Soldevilla

Interventora accidental Dª. Itziar Kortabarria Garitano

Abierta la sesión, se inicia el estudio y debate de los asuntos incluidos en el Orden del Día.

ORDEN DEL DIA

1.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA SESIÓN DE 26 DE MARZO DE 2026:

ESKU557571db-c175-4c2f-86e8-378edb1c4a2b

ZARAUZKO UDALA

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20260428&punto=1

Es aprobada, por unanimidad, sin enmienda alguna.

2.- CONTROL DE LOS DECRETOS DE LA ALCALDÍA

— **del 21 de marzo de 2026 al 22 de abril de 2026**

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20260428&punto=2

La Corporación tiene conocimiento de los decretos dictados por la Alcaldía en el período del 21 de marzo de 2026 al 22 de abril de 2026.

3.- CONTROL DE LOS ACUERDOS DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL:

— **del 23 de marzo de 2026 al 20 de abril de 2026**

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20260428&punto=3

La Corporación tiene conocimiento de los acuerdos adoptados por la Junta de gobierno local en el período del 23 de marzo de 2026 al 20 de abril de 2026.

4.- DAR CUENTA DE LA LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DEL 2025

Expediente: 2026D203000

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20260428&punto=4

La Corporación es informada sobre la liquidación del 2025.

5.- DAR CUENTA DEL DECRETO DE ALCALDÍA: REVOCAR LAS DELEGACIONES DE GESTIÓN Y COMPETENCIAS ATRIBUIDAS AL CONCEJAL IKER BASURKO DE MIGUEL Y APROBACIÓN DE DELEGACIONES ESPECIALES A FAVOR DE VARIOS MIEMBROS DE LA CORPORACIÓN

Expediente: 2025IIII0002

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20260428&punto=5

La Corporación es informada sobre el decreto 2026/908 de 22 de abril de 2026.

ESKU557571db-c175-4c2f-86e8-378edb1c4a2b

ZARAUZKO UDALA

Mediante Decretos de Alcaldía de 23 de junio de 2023 (nº 1456) y de 29 de junio de 2023 (nº 1468), se acordaron delegaciones especiales a favor de miembros de la corporación que se indicaron, delegando la gestión de determinadas áreas de la organización municipal, reservándose la Alcaldía la potestad de resolver mediante acto administrativo. En el marco de dichas delegaciones al concejal D. Iker Basurko de Miguel se le delegó la gestión de las siguientes áreas:

- Hacienda y Finanzas (complementario a la delegación general), Contratación y Patrimonio
- Zarautz 2030, Proyectos Estratégicos e Innovación.
- Movilidad

Mediante Decreto de Alcaldía de 9 de noviembre de 2023, se resolvió delegar en el miembro de la Junta de Gobierno Local D. Iker Basurko de Miguel las siguientes competencias atribuidas a la Alcaldía:

- Informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato.
- Comprobación de que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación.
- Resoluciones para la aprobación del gasto.

Por circunstancias sobrevenidas, el citado concejal no podrá ejercer las delegaciones encomendadas temporalmente.

